

## EDITORIALA

### Ahaztezina

Gure aurretik izan zirenen leku-koak eta oinordekoak garen heinean, haien testigantza eta konpromisoa gaurkotzea eta geureganatzea zilegia bezain beharrezkoa zaigu. Ez da bakarrik norbanakoan eta kolektiboko memoriaren ganbaran gorde-rik dauden pasadizoek sortzen duten zirrara eta hunkipena eguneratzea, hori ere beharrezkoa bada; izan ziren era ezberdinetako militanteen aitorkuntza eta izen ona berreskuratzea oraindik betetzear dagoen justiziazko exijentzia ere bada.

Bide horri helduaz, egun gogoangarria izango da joan den astean sindikatuko militanteek memoria historikoa berreskuratzeko Nafarroako Lodosan eginiko ekitaldiarena. Ez zen kasualitatea izan herri hone-tan ekitaldia burutu izana, bertako militante baten ekimenak eman zion itxura eta edukia aldarrikatzen ari garen memoria berreskuratzeko ahaleginari. Eta nahiz gerra fronte-rik ez zuen izan Nafarroak, argi asko geratu zen Erriberako lur sailen bazterretan errepresioa eta heriotza gogorki barreiatu zirela, bazterrak odoleztatuz eta galtzaile-en bizimodua jasanezina bilakatu.

Gure memoria eta historia berritzean eta freskatzean, jakin badakigu altxamendu militar mada-rikatu hark gure organizazioa ere gupidarik gabe jo zuela: militante gudariak erailak, besteak erbestera zigortuak, kartzelatuak... Guzti hori gutxi balitz, organizazioa debe-katu eta bere ondasun guztiak indar-zez kendu zitzaizkigun, oraindik ordain kalteak kitatzekotan daude-larik. Horregatik, eta militantziaren eremu ezberdinetatik ikusita ere, sufrimendua jasan zutenen memoria gure memoria ere bada, gurea egitea erabaki dugulako. Lehenari errepa-ratzeaz gain, irakurketa politikoa eguneratua egiteko balio izan zigun, egungo testuinguruan gauza asko ez dela aldatu baieztatzeke ere, idazka-ri nagusiak azaldu zuen bezalaxe. Nafarroako landa zabalek ez dute mugarik izango haien oroitzapena eta ideiak present izan ditzagun. Gurean bizirik diraute. Memoria ahaztezina, ahaztezinazko eguna.

**ELA celebró el 6 de noviembre un emotivo acto en Lodosa y Sartaguda para exigir la reparación de la memoria histórica**

## LA MEMORIA Y LAS IDEAS NO SE ENTIERRAN

Lodosa y Sartaguda –dos de los pueblos de Navarra que más sufrieron la represión y el terror que provocaron el golpe de Estado de 1936 y la dictadura franquista– fueron testigo el viernes 6 de noviembre de una evidencia, que no por sabida no deja de ser obvia. Se pueden apresar miles de personas, atarlas de pies y manos, y por el mero hecho de ser socialista, anarquista, euskaldun, o, simplemente, pedir un trozo de tierra, asesinarlas y dejarlas tiradas en la cuneta. Se puede humillar durante décadas a las familias de esas víctimas. Se pueden morir tranquilamente en la cama, y con carné de *demócrata de toda la vida*, quienes impulsaron todo un régimen de terror. Pero lo que no se puede es enterrar ni la memoria ni las ideas.

Gorka Vierge, responsable de ELA en Sakana y nieto del represaliado Galo Vierge, lo resumió perfectamente: “Mi abuelo, antes de morir, me dijo que los fascistas cortaron los mejores árboles, los más sanos y hermosos, pero lo que no pudieron hacer es arrancar las raíces”. Y porque esas raíces y esas ideas permanecen vivas, y porque ELA se resiste a enterrar la memoria histórica y las ideas de los represaliados/as, casi un millar de personas se juntaron en Lodosa y Sartaguda.

### MERECIDO HOMENAJE

El acto fue muy emotivo. En primer lugar Gorka Vierge hizo una breve reseña histórica y analizó cómo era la Navarra



de los años 30 del siglo pasado. Vierge destacó la actitud de quienes hicieron frente al fascismo y la crueldad de quienes llenaron las cunetas de Navarra de víctimas inocentes. “Aunque en Navarra no hubo frente de guerra 3.400 personas fueron fusiladas por el mero hecho de querer una Navarra distinta a la que querían los fascistas”.

*ELAk bat egiten du faxistek Nafarroan erail zituzten milaka lagun en amets eta helburuekin. Aberastasunaren bidezko banaketa eskatzen zuten, bestelako gizarte baten alde borrokatu zuten.*

*Gerra frontierik egon ez arren, 3.400 lagun erail zituzten Nafarroan. Erribera izan zen errepresioa bortizkien bizi izan zen lekuetako bat. Hala ere, ez zuten lortu eraildakoek ideiak lurperatzea.*

## LANGILEON INTERESEN KONTRAKOA

ELAk Eusko Jaurlaritzak 2010. urte-rako aurkeztu berri dituen aurrekontu orokorren inguruko balorazioa egin zuen azaroaren 5ean, Bilbon. Gizarte politiketarako arduradun Mikel Novalek hitz gogorak izan zituen Jaurlaritzak aurkeztu duen proiektuaren inguruan: “Ez ditu beharrian sozialak asez-ten, eta ez dio krisiari erantzunik ematen”.

Ekonomiaren egoerak okerrerantz egin duen arren Jaurlaritzak ez diola egoerari zegokion erantzunik eman uste du Novalek. “Egoera ekonomiko makurra bizi dugu, eta Gobernuaren erantzuna aurrekontuko kopuru han-

diak ez gastatzea izan da, horrela krisia bera larriagotuz. Aurrekontuetatik gas-tatu gabeko diru hau gizarte-gastura eta enplegua sortzeko politiketara bideratu behar zen, baina Eusko Jaur-laritzak, besterik gabe, ez du nahi izan”.

Gastu maila txikiagoak gizarte-babesean ondorio zuzena izango duela salatzen du gizarte politiken arduradu-nak. “Honela gai hauetan eta beste batzutan –euskarak erakundeen esku daudenak– ezagutzen ditugun defizit sozial handiak bere horretan geratu edo areagotu egiten dira. Ezin dugu ahaztu garapen ekonomikorik handie-

na duten estatuen batezbesteko maila-ra iristeko gastu soziala nabarmen handitu beharko litzatekeela”.



El histórico militante de ELA en la Ribera José Ceballos fue el siguiente en intervenir. Recordó que todavía no se ha dicho toda la verdad. "Del mismo modo que llegó el terror, llegará la luz. Para ello necesitamos libertad. Quienes sembraron el terror en este pueblo saben que luchamos por ser libres para poder contar nuestra verdad".

Tras la emisión de un video que recogía los testimonios de quienes sufrieron la represión fascista tomó la palabra Mitxel Lakuntza, responsable de ELA en Navarra. Lakuntza recordó que "si hoy sabemos lo que sabemos es porque algunos nos lo han contado". De este modo, fue presentando a diferentes personas que han luchado por la recuperación de la memoria histórica: Julio Sesma, vecino de Sartaguda; José Mari Esparza, miembro de Altaffaylla y la editorial Txalaparta; Txema Aranatz, de la editorial Pamiela y Luisa Sesma, vecina de Sartaguda. Puestos en pie, y con la música del cantautor Fermín Valencia, los asistentes reconocieron con su aplauso el trabajo de estas personas.

Sin duda fueron las intervenciones de Julio Sesma y Luisa Sesma las más aplaudidas. Julio contó las penurias que pasó su familia en aquellos años. Por su parte, Luisa contó su dramática historia. "Siete personas de mi familia fueron asesinadas, entre ellos tres hermanos y mi padre. Estoy muy orgullosa de todos ellos. Siempre lo digo: prefiero ser la hija de un ase-

sinado a ser hija de un asesino. Hemos convivido con quienes asesinaron a nuestros familiares y amigos, con quienes nos robaron todo, y, además quieren que olvidemos. Pues no. A mí me asesinaron a siete familiares; creo que es hora de decir que ya basta".

Por último, y para concluir el acto del frontón de Lodosa, habló el secretario general, Adolfo Muñoz, Txiki. "La 'modélica' transición española fue tutelada e impuesta. Se basó, paradójicamente, en la renuncia a sus ideas de una buena parte de los perdedores de la guerra. Ese fue el Pacto de Estado que sigue vigente. Nosotros, como los fusilados/as en Navarra, también luchamos por conseguir un reparto más justo de la riqueza."

Para finalizar la jornada, los reunidos en el frontón de Lodosa se desplazaron al Parque de la Memoria de Sartaguda, donde se hizo una ofrenda floral frente al muro que recoge el nombre de las 3.400 personas asesinadas en Navarra. Porque, aunque algunos no quieran verlo, su recuerdo y sus ideas siguen vivas.

**Arriba Luisa Sesma, con una foto de sus tres hermanos fusilados por los fascistas. Abajo Adolfo Muñoz, Txiki, e Iñaki Irisarri, responsable de ELA en la Ribera, en la ofrenda floral que se hizo en el Parque de la Memoria de Sartaguda.**



**ELA descalifica el proyecto de presupuestos del Gobierno Vasco para el 2010 por continuista y critica que este año se dejen de gastar 800 millones de euros**

# NI CUBREN LAS NECESIDADES SOCIALES NI DAN RESPUESTA A LA CRISIS



**H**ace un tiempo el Gobierno Vasco hizo públicas las líneas generales del presupuesto de la CAPV para 2010. Transcurrido un tiempo prudencial para analizarlos en profundidad, se confirma la primera impresión: según el gabinete de estudios de ELA el proyecto de presupuestos para el próximo ejercicio marca una clara tendencia de continuidad respecto a los presupuestos aprobados en años anteriores, lo que supone que el Gobierno Vasco, además de no cubrir las necesidades sociales existentes, no está a la altura a la hora de dar una respuesta a la crisis.

Las críticas de ELA a la política presupuestaria del Gobierno Vasco no se circunscriben a este anteproyecto. También son muy críticos con la manera de ejecutar el presupuesto para 2009, aprobado por el anterior gobierno. "Nos parece una nefasta política

política presupuestaria que este gobierno haya decidido gastar este año 800 millones de euros menos que los que tiene autorizados". En opinión de ELA este hecho contribuye a agravar la crisis. "Este dinero presupuestado y no gastado debería haberse destinado al gasto social y a políticas de creación de empleo, pero el Gobierno Vasco, simplemente, no ha querido", critican desde el gabinete técnico.

## MENOR GASTO PÚBLICO, MENOS GASTO SOCIAL

El proyecto de presupuestos para 2010 establece un bajo nivel de gasto público, que se reduce en un 1% respecto a la previsión de cierre de 2009. De confirmarse estas cifras, el peso del Gobierno Vasco en la economía se reduciría, al pasar del 15,2% del PIB al 14,9%, y eso que la previsión económica del gobierno para el año que viene es que continúe la recesión.

El menor nivel de gasto tiene una repercusión directa en el gasto social. Para el año que viene el gasto público en sanidad se mantiene en el 5,2% del PIB a pesar del constante incremento de las necesidades existentes en esta materia; se congela el gasto público destinado a educación —se congela en euros, y pasa del 4,1% del PIB en 2009 al 4% en 2010—, y el gasto público en vivienda se reduce en un 7,3% respecto a 2009".

De este modo, se mantienen o agravan los grandes

déficits sociales existentes en estas y en otras materias, que dependen de las instituciones vascas. Cabe recordar que para equipararnos a la media de los países más desarrollados económicamente el gasto público en sanidad debería crecer un 47,7%, mientras que el gasto público en educación debería aumentar el 40,3%.

En definitiva, el proyecto de presupuestos marca una clara tendencia de continuidad respecto a los presupuestos aprobados en años anteriores, lo que supone que el Gobierno Vasco, además de no cubrir las necesidades sociales existentes, no está a la altura a la hora de dar una respuesta a la crisis.

## POLITICAS NEOLIBERALES

Conocidas las grandes cifras, Amaia Muñoa, secretaria general-adjunta, no duda en calificar estos presupuestos de "neoliberales" y destaca el hecho de que se realicen sin tener en cuenta a las organizaciones sindicales y sociales. "Estos presupuestos tienen mucho de bombo y platillo y poco de actuaciones reales contra la crisis. También hay que destacar que los grandes partidos parlamentarios están de acuerdo con el desarrollo de políticas neoliberales".

Muñoa resaltó la necesidad de un cambio de políticas públicas y se mostró convencida de que "eso sólo será posible a través de la concienciación y la movilización social".

ELA presentó el 4 de noviembre un informe sobre el puerto exterior de Pasaia. El informe concluye que no hay ninguna razón para construirlo, y denuncia que se pretenda hacer una obra que no es necesaria en lugar de atender las grandes necesidades sociales que tenemos. El informe íntegro se puede conseguir en la página web de ELA: <http://www.ela-sindikatu.org>

**ELAk aurkeztu berri duen txostenak argi uzten du proiektu honek ez duela izateko arrazoirik**

# KANPOKO PORTUA EZ DA BEHARREZKOA



## 1. PORTUKO JARDUERA EZ DA HAZTEN ARI

Portua merkantzien biltegi gisa erabiltzen ari dira. 2008an, Pasaia portuko trafikoa 4,7 milioi tonakoa izan zen, 2003an baino %20 txikiagoa, hain zuzen ere. Kanpoko portua eraikitzea proposatu dutenek portua txiki geratu dela diote, euren interesek bultzaturik, baina, plan estrategikoaren arabera, portuaren trafiko-ahalmena 13 milioi tonakoa da. Trafikoa areagotu egingo zela aurreikusi zuten arren, urritu egin da. Orain, etorkizuneko beharra handiagoa izango dela eta, kanpoko portua eraiki behar dela diote. Zer-nolako sinesgarritasuna dute *aurreikuspen* horiek?

## 2. BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOA EZ DAGO FROGATURIK

Aldi bakoitzean, gauza berri bat esaten dute. Oraingoan diotenez, lehenengo fasean, proiektu osoaren %70 eraikiko da, eta horrekin premia guztiei erantzungo omen zaie. Horrela bada, zertarako eraiki gainerako %30a? Horrez gain, Madrilgo abokatu-talde bat kontratatzekotan dabilta, behar den finantzaketa lortzeko: 1.050 milioi euro + BEZ, hain zuzen ere. Eta portua zehazki non eraikiko den erabaki behar da oraindik. Hau da, oraino ez dakite zehazki non eraiki, ez eta nork eta zenbat ordainduko duen. Baina, hala eta guztiz, proiektu errentagarria dela sinestarazi nahi digute.

## 3. ENPLEGU-SORRERARI BURUZKO DATUAK OSO ZALANTZAZKOAK DIRA

Ez da zehatz esan, ez eta arrazoitu ere, kanpoko portuak zenbat lanpostu sortuko dituen. Ez da harritzekoa, proiektua saldu nahi digutenen doitasunik eza ikusirik. Proposatzen diren jarduerak kontuan hartuta, enplegu berrien beharra ñimiñoa izango da.

Halaber, oraingo jardueren lekualdaketa eta zamalanetarako sistemen birmoldaketa plantillak murrizteko aukera suertatu litezke. Edonola ere, baliabide horiek gizarte-zerbitzu publikoak (osasuna, haur-eskolak, adindunentzako egoitzak,...) hobetzeko erabiliz, askoz enplegu gehiago sortzen da, dudarik gabe.

## 4. BENETAKO ARRAZIOIAK

Portuaren interes ekonomikoa bere eraikuntzan bertan datza, bai eta ikatz-makrozentral termikoaren, biodiesel-instalazioaren eta hidrokarburuen deposituen ezarpenean ere. Hortaz, hasteko, portuaren eraikuntza

bera izango da negozioa, eta ondoren, merkantzien biltegi handia eta jarduera kutsagarrien ezarlekua izango da batez ere.

## 5. IRTENBIDE HOBEAK DAUDE

Proiektu hau taxutzean, ez dira inguruko portuak (Bilbokoa, Baionakoa) aintzat hartu, ez eta denen arteko proiektu erkidea eratzeko aukera ere.

Badiaren egoeraren hobekuntza kanpoko portuaren eraikuntzaren menpe jarri dute. Gaurko portuan, bertan behera utzi dira inguruko biztanleriarentzat egokia izan dadin egin beharreko hobekuntzak, kanpoko portua irtenbide bakarra dela erakutsi nahian. Baina Portuko Agintaritzaren Plan Estrategikoak berak berresten ditu dauden hobekuntza-aukerak, orain artean egin den kudeaketa txarra agerian utziz. Badiaren antolamendua egokituz gero, jardunak aurrera jarraitu, eta lurzorua erabilera berriak ezar daitezke, eragiten diren ingurumen-arazoak urritzeaz eta badiaren eta hiriaren arteko lotura areagotzeaz batera.

Ingurumen Ministerioak esan du oraindik aztertu ez diren alternatiba guztiak kontuan izan behar direla eta egokiena aukeratu.

## INGURUMENAREN NARRIADURA LARRIA

### 1. Balio natural ugariak dituen ingurua eta eremu babestua da

Jaizkibel balio ekologiko handiko ingurua da. Bertako paisaia birjina itsaslabar ikusgarriek, senaia estaliek eta itsas gaineko belardiek osatzen dute. Interes ekologikoko 11 gune ditu, eta bizi-aniztasuneko mosaiko handia da (Interes Komunitarioko 13 habitat daude, zeinetan oso bitxiak eta galkorrak diren hainbat landare espezie bizi diren). Hegazti migratzaileentzako gordeleku da, eta

Europar babesturiko 16 animalia espezie ere bizi dira bertan. Bere balioak direla eta, hainbat babes-egitasmoren xede da, hala nola Natura 2000 Sarearena, Europako Erkidegoko Babes Bereziko Gunea, EAEko Natura Intereseko Eremua eta Donostialde-Bidasoa Beheko Lurralde Planeko Babes Bereziko Gunea. Horrez gain, Jaizkibel Natura Erreserba izateko eta Natura Parke izendatzeko proposatu zen.

### 2. Ingurumen-inpaktu itzulezinak eragingo ditu

Pasaia oraingo portua ingurumen-kalte larriak sortzen dituen txatar-biltegia da. Kanpoko portuak, oraingoaren xede bera izango badu ere, ingurumen-inpaktu larriagoak eragingo ditu.

Azterlanetan onartzen denez, portuak kalte garrantzitsuak eragiten eta eragingo ditu. Ildo horre-

## ZERBITZU PUBLIKO GEHIAGO BEHAR DIRA

Behar ez dugun eta ingurumen-kalte larriak eragingo dituen eraikuntza-lan batean itzelezko dirutza xahutu nahian dabiltzalarik, eskualdean gizarte-premia asko daude estali gabe:

- Osasunari dagokionez, Bidasoako ospitaleak, eskualde-mailako zentroa den arren, oso ohe gutxi ditu, arreta egin behar dion biztanleriarentzat. Zerbitzua handitu egin behar da, eta espe- zialitate berriak sartu, Bidasoa Gipuzkoako eskualderik jendetsuenetakoa da eta.

- Premiaz hobetu beharreko beste arlo bat haur-eskolena da. Eskualdeko haur-eskolen estaldura

## EZ DA HERRITARREN IRITZIA KONTUTAN HARTZEN

Portuaren etorkizunaren inguruan ez da eztabaidarik egon. Herritarrek ezin izan dute erabakian parte hartu. Proiektu honen kontra gaudenon arrazoiak ez dira ez entzuten, ez erantzuten, nahiz eta ordezkartza sozial eta politiko zabaleko erakunde askoren iritzia izan. Ministerioak berak onartu eta kritikatu du hau. Horregatik guztiagatik, ELAk eztabaida publikoa irekitzeko eta herritarrei kontsulta egiteko exijitzen du, bai eta bideragarriak eta biztanleria osoarentzat onuragarriak izan daitezkeen irtenbideak aztertu daitezkeen ere, gutxi batzuei interesatzen zaizkienak jorratu beharrean. Pasaia badi onera ekartzeko jardun egokia exijitzen dugu.

tan, ingurumen-inpaktua ahalik eta gehien murrizten saiatuko direla diote. Oraingo portuan ez dira behar besteko ingurumen-neurriak hartzen. Hartuko al dira kanpoko portuan?

### 3. Ez da ekoportua

Jaizkibelgoa ekoportua dela sinestarazi nahi dute, baina, berez, superportu arrunta baino ez da. Bertan mugituko diren merkantziak ez dira garbiak izango, merkantzia zikinik ibili ezean, ez baita errentagarri izango. Interesatuek diotenez, Jaizkibelen ez da lur-erazketarik egingo, baina isilean gorde dute 200 hektareako itsas azalera beteko dutela.

Marea baliatuz energia berriztagarria sortzeko instalazioa eraikitzea proposatzen dute, baina ez dute aipatu zentral termiko bat, koke-instalazio bat eta lurrazpiko CO2 biltegia ere eraikitzekotan dabilzala. Beraz, ekologikoa den bakarra propaganda da. Errealitatea askoz zikina goa da.

### 4. Garapen-eredu jasanezina da

Proposatutako garapen-ereduak lurzoru eta baliabide asko eta asko kontsumitzea dakar. Baliabide naturalak xahutu, nekazaritzarako lurzoru murriztu eta azpiegitura berrien beharra sortuko da (errepideak, trenbideak,...); alegia, inguruko bizi-kalitatea narriatu egingo da. Garapenak jasagarri izan behar du, eta proiektu hau ez da jasagarria.

Ingurumen Sailburuordetzak berak esan zuenez, "inolako oinarririk ez duten baieztapenak egiten dira, eta benazko kontraesan ugari daude". Ministerioak ohartarazi du proiektu hau ez dagoela justifikatuta ez teknikoki, ez ekonomikoki, ezta ingurumen ikuspunturik ere.

negargarria da, 0 eta 3 urte arteko umeen %14,3rentzako tokia baino ez baitago. Zenbait udalerritan, gainera, egoera are larriagoa da (Errenterian, umeen %6,7k du tokia, eta Irunen, %7,6k).

- Adinekoentzako egoitzen estaldurari gagozkiola, berriz, adinekoen %2,2k bakarrik du tokia. Nahiz eta adindunak gero eta gehiago diren, estaldura ez da hazten. Izan ere, EAEko tasa berez baxuaren (%3,9) azpitik gaude.

- Etxez etxeko laguntzak, azken urteetan zertxobait hazi bada ere, urrundik ere ez ditu estaltzen adineko biztanleriaren premiak. Bidasoako %4,1eko tasa eta Donostialdeko %3,7koa ez dira EAEko batez besteko estaldurara (%5,4) iristen.

**Xabier Expositok, irakaskuntza publikoko arduradunak, Isabel Celaa hezkuntza sailburuak euskararen aurka duen jarrera salatu du**

## HEZKUNTZAN ERE UNIFORMIZAZIOA



**E**usko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburu Isabel Celaak euskararen aurka jo du; euskara eta gaztelaren arteko parekotasuna bilatzen denaren aitzakian, curriculumaren aldaketa eskatu du gaztelari lehentasuna emateko. Xabier Expositoren esanetan eskaera honen atzean Estatuaren uniformizazioaren asmoa dago. Egoera honen aurrean, gehiengo sindikalak mahai sektoriala bertan behera uztea erabaki zuen azaroaren 5an.

**-Zer lortu nahi du Patxi Lopezen gobernuak erabaki honekin?**

-Gaur egungo Eusko Jaurlaritzak daukan helburu nagusia Espainiako Estatu uniformizatzea da, Euskal

Autonomia Erkidegoa beste edozein erkidegoren pareko bilakatu. Isabel Celaak iragarri dituen curriculumaren aldaketak helburu hori gauzatzeko beste saiakera bat besterik ez da.

Aldaketa hauek eragiten dieten gaiak agerian uzten dute, argi asko, gobernu honen ibilbidean obsesio identitarioak, espainolak kasu honetan, daukan garrantzia.

Alde batetik, Euskal Herria kontzeptua errealitate ia folkloriko batera murrizteak gure errealitate nazionalarekiko erreferentzia guztiak curriculumetik ezabatzea du helburu.

Bestetik, euskarari irakaskuntza-hizkuntza nagusien izaera kentzeak eta horren ordez gaztelaniarekiko ustezko -ez benetako- parekatzea ezartzeak, euskara desabantailan uztea dakar, kontuan izanda bere egoera diglosikoa.

Gainera, parekatze faltsu bat besterik ez dela baieztatzeko nahikoa da, salbuespenei dagokienez, hizkuntza bati eta besteari ematen zaien trataerari erreparatzea.

**-Egoera honetan gehiengo sindikalak mahai sektoriala uztea erabaki du. Zergatik?**

-Baldintza hauetan ezinezkoa zaigu sindikatuoi Hezkuntza Sailarekiko elkarrizketa normalizatu. Beharrezkoa ikusten dugu sailaren arduradunek hartu duten norabideaz gogoeta serioa egitea.

Hezkuntzan lan egiten duten lagun askorentzat iraingarriak diren adierazpen hauetaz gain, gestio autoritarioa eramaten ari dira behin eta berriro, langileengan eragin zuzena duten aldebakarreko ekimenak bideratuz, sindikatuarekin alde aurretik adostu eta hitz egin gabe ere: Eskola 2.0, ingelesezko barnetegiak, irakasleentzat ez-ohiko diru laguntzak ingelese ikasteko...

Horregatik guztiagatik, hezkuntzan gehiengo sindikala osatzen dugun sindikatuok -ELA, STEE-EILAS eta LAB-, protesta gisa erabaki dugu Hezkuntza Sailaren aurrean planto egitea. Mahai sektorialean parte hartzeari uko egin genion, argi uzteko ez gaudela prest gehiegikeria hauek erantzun gabe uzteko.

*“Las modificaciones al currículum anunciadas constituyen el intento de plasmar, también en el terreno escolar, el principal objetivo del Gobierno Vasco: uniformizar el Estado, haciendo de la CAPV una comunidad más.”*

### Labur Breves

#### ■ Nuevas jornadas de huelga en Petronor

El 24 de septiembre la asamblea de trabajadores y trabajadoras de Petronor aprobó realizar dos nuevos periodos de huelga antes de finales del mes de enero de 2010, ante la falta de voluntad negociadora de la dirección de la refinería. Entre los días 6 y 10 de noviembre la plantilla de Petronor secundó mayoritariamente el primero de los dos periodos de huelga en protesta por el bloqueo de la negociación colectiva.

#### ■ Los trabajadores de Ormazabal irán a la huelga indefinida por su convenio

Tras los paros de una hora llevados a cabo durante cinco días y ante la negativa de la dirección de la empresa a modificar su posición en la negociación del convenio, la plantilla de Ormazabal -empresa situada en Igorre- ha convocado una huelga indefinida a partir del 23 de noviembre. El comité critica duramente la postura de la dirección de Ormazabal, ya que tratándose de una empresa con enormes beneficios -más de 50 millones de euros en 2008 y que terminará con beneficios también en 2009, según la propia empresa- no está dispuesta a incrementos salariales por encima del IPC.

Además, la empresa vincula la reducción de la flexibilidad al aumento de los ritmos de trabajo, lo que a juicio del comité es algo inadmisibles.

#### ■ Un día de paro en las cocinas y cafeterías de los hospitales

El 19 de noviembre tendrá lugar una jornada de huelga en las cocinas y cafeterías de los hospitales de Osakidetza, en demanda de un convenio que ponga fin a su situación de discriminación frente al personal laboral del departamento de sanidad. Tras casi un año de negociaciones con el ejecutivo anterior, en donde existían propuestas para equiparar a este colectivo, el cambio de ejecutivo ha dejado sin negociación y sin convenio a este sector.

#### ■ El ayuntamiento de Cortes condenado por la vulneración del derecho a la huelga

Los trabajadores del ayuntamiento de Cortes iniciaron en abril de 2008 una huelga indefinida reivindicando la apertura de la negociación de un convenio propio. ELA interpuso una demanda por entender que se estaba sustituyendo de manera ilegal a los trabajadores/as en huelga.

Ahora, el Tribunal Superior de Justicia de Navarra ha condenado, en sentencia firme, al ayuntamiento de Cortes por vulneración del derecho fundamental a la huelga, debiendo abonar una indemnización de daños y perjuicios.

[www.ela-sindikatua.org](http://www.ela-sindikatua.org)

**ELA** **a**stekaria

Barrainkua 13, Bilbao  
Tel. 94 403 77 00  
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

[www.ela-sindikatua.org](http://www.ela-sindikatua.org)

Franqueo concertado  
nº 08/207